

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Oiartzungo Udala

Ayuntamiento de Oiartzun

2020





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak.....	10
III.2 Pertsonala.....	11
III.3 Kontratazioa.....	11
III.4 Transferentziak eta dirulaguntzak	11
III.5 Beste alderdi batzuk	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK	15
V.1 Udala.....	15
V.2 Oiartzungo Turismo Aukerak S.A.	18
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Pertsonaleko gastuak.....	22
A.6 Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	24
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez-korrontea.....	25
A.9 Zordunak.....	26
A.10 Hartzekodunak eta zorpetzea	27
A.11 OTASA	27
A.12 Oiartzungo Udal Ikastola partzuergoa.....	28
A.13 Kontratazioa.....	30
ALEGAZIOAK.....	31



ABREVIATURAS	39
I. INTRODUCCIÓN	41
II. OPINIÓN	42
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	42
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	44
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos	44
III.2 Personal.....	44
III.3 Contratación	45
III.4 Transferencias y subvenciones	45
III.5 Otros aspectos.....	46
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	47
V. CUENTAS ANUALES	49
V.1 Ayuntamiento.....	49
V.2 Oiartzungo Turismo Aukerak, S.A.....	52
ANEXOS	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	53
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	54
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	55
A.5 Gastos de personal	56
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	57
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	58
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	59
A.9 Deudores.....	60
A.10 Acreedores y endeudamiento	61
A.11 OTASA	61
A.12 Consorcio Oiartzungo Udal Ikastola	62
A.13 Contratación	64
ALEGACIONES	65



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OTASA	Oiartzungo Turismo Aukerak S.A.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
SPKL	9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
Udalhitz	EAEko tokiko euskal erakundeetako langileen lanerako baldintzak arautzen dituen akordioa.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Oiartzungo Udalaren 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta OTASA udal sozietate publikoaren balantzea, ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta memoria ez ezik, Udalaren aurrekontuen likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Oiartzungo udalerrriak 10.309 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1ean, eta bere egiturari, Udalaz gain, OTASA udal-sozietatea (% 100) dago. Sozietate horren xedea Oiartzunen turismoa eta aisialdia bultzatzea, garatzea eta sustatzea da.

Gainera, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan parte hartzen du. Partzuergo horrek 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza-zerbitzuak ematen dizkie (ikus A.12) eta ez zaio Udalari atxiki, ez baititu estatutuak indarreko araudira egokitu. Horrez gain, Oarsoaldea S.A. sozietate publikoak (% 25) Udalaren eskumenak garatzen ditu alor hauetan: enplegua, turismoa, euskara, kontsumitzailearentzako informazioa eta sustapen ekonomikoa.

Lanbarren Parke Logistikoa S.A.n ere parte hartzen du (% 24,5).

Gainera, ondoko udalaz gaindiko entitate hauetako kide da:

- San Markoko Mankomunitatea (hiri hondakin solidoen kudeaketa).
- Añarbeko Uren Mankomunitatea (hornikuntzako eta saneamenduko lehen mailako sarea kudeatzea).



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. 2018an, Udalak zerga-ikuskapeneko eginkizunetan laguntza kontratatu zuen, eta 2020an 122.306 euroren kostua izan zuen. Funtzio horiek oso-osorik funtzionarioentzat gordeta daude eta ezin dira kontratatu, zerbitzuaren esleipena baliogabetzen duen 2020ko apirilean emandako epaiak zehazten duenaren arabera. Kontratuaren indarraldia urte horretako ekainean amaitu zen (ikus A.13).
2. Taxi bidezko garraio publikoaren zerbitzua (48.028 euroren kostua izan zuen 2020an) 2011n formalizatu zen elkarte batekin egindako hitzarmen baten bidez, publikotasun eta lehia printzipioak saihestuta; ordea, kontratazioko araudia aplikatu behar zatekeen (ikus A.13).
3. Udalak partaidetzen duen Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren estatutuak ez dira indarreko araudira egokitu; izan ere, araudi horrek Udalarari atxikitzea eskatzen du, aurrekontuak eta kontuak Udalarenetan integratuz; Partzuergoaren jarduera ekonomikoa kontu-hartzailearen kontrolaren mende dago eta bere langileen kudeaketa sektore publikoko langileen araudiaren mende (ikus A.12).

Epaitegi honen iritzira, Oiartzungo Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetua osatzen duten elementuen xehakapenik egiten. Gainera, inbentarioan jasotako azpiegiturak, 2020ko abenduaren 31n 21,4 milioi euroren kontularitzako balio garbia zutenak, ez ziren 2020an amortizatu, ezta aurreko urteetan ere. Horregatik guztiagatik, ezin zehaztu daiteke aktibo ez-korrontearen saldoak, 94,6 milioi euro 2020ko abenduaren 31n, ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen, ezargarriak zaizkion balorazio-arauak jarraikiz (ikus A.8).
2. Udalaren Kontu Orokorren Memoriak ez du jasotzen zer konpromiso hartu diren 2021-2023 aurrekontuen kontura emandako 1,7 milioi euroren dirulaguntzak jaso dituzten 8 erakunderekin. Memorian ere ez da jaso eraikin balioaniztunaren obra finantzatzeko 2021eko aurrekontuaren kontura hartutako 536.338 euroren konpromisoa, (ikus A.7).

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1 eta 2 paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Oiartzungo Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2020ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- Udalaren memoriak ez du ematen jabari publikoa okupatzeagatiko tasa arautzen duen Ordenantzaren aurka jarritako errekurtsoren ondorioz dauden kontingentzien berri (ikus A.9).
- Aurrekontuko pertsonaleko eranskinak plantillako lanpostuak eta LPZ xehakutzen zituen, ez, ordea, dotazio globalak premiazko edo noizbehinkako beharretarako (bitarteko 15 funtzionario), eta udaltzaingoaren eta obretarako brigadaren aparteko ordu eta gauetako-jaiegunetako plusengatiko haborokinetarako.
- Alkatetza-dekretu bitartez kredituak aldarazteko 4 espediente onartu ziren, guztira 109.813 euro; ordea, horiek Udalbatzak onartu behar zituzkeen. Transferentzia batean, programen aldaketa metatuek hasierako diru-izendapenen % 25 gainditzen zuten, eta 3 gaikuntzatan handitu zitekeen partida bati kreditua eman zitzaion; partida horrek izaera hori galdua zuen jada, alde aurretik transferentzia bat finantzatzeko erabili baitzen.
- 2020ko barne-kontrolari buruzko txostenean adierazten denez, gastuen aurretiazko fiskalizazioa mugatua izan zen, nahiz eta Osoko Bilkurak ez zuen erabaki kontrol-modalitate hori aplikatzea.
- Lanbarren Parke Logistikoa S.A. sozietate publiko partaidetuak galerak pilatu zituen 2020ko abenduaren 31n, eta galera horiek ibilgetu finantzarioaren balioa 469.697 euroan zuzentzea eskatzen zuten.
- Jasotako fidantzen eta gordailuen kontuak antzinako saldoak ditu, eta horien eskagarritasuna aztertu beharko litzateke (ikus A.10).
- Ekitaldi itxietako eskubideen baliogabetzeak, 354.258 eurorenak, ondare-kontabilitatean ekitaldiko diru-sarrerak murriztuta erregistratu ziren, aurreko ekitaldietako emaitzei egotzi beharrean.
- Araudiak eskatzen du hirigintza-sarreraren eta ondarea saltzeagatiko diru-sarreraren eta horiei emandako xedearen erregistroa mantendu behar dela. Erregistro horretan adierazi beharko litzateke araudian aurreikusitako helburuei aplikatzeke daudenen zenbatekoa, eta alderdi hori kontuan hartu beharko litzateke finantzaketa-desbideratzeen kalkulua egitean.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2 PERTSONALA

- 2020an indarrean zegoen Lan-baldintzak arautzeko akordioa Udalbatzak 2009an onartu zuen, baina, ez zion nahitaezkoa den publikotasuna eman. Halaber, ez zitzaion publikotasunik eman 2020ko ordainsari igoera (% 1,5) onartu zuen erabakiari.
- Udalak 2019ko azaroan 2020rako LPZ onartu zuen, non 2 lanpostu sortu baitziren eta beste baten maila aldatu baitzen. Udalak LPZ berria argitaratu zuen eta 89 lanpostuak zerrendatu zituen, baina ez zituen 2 lanpostu sortu berriak eta onartutako maila aldaketa identifikatu.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 6 kontratu nagusiak aztertu ondoren -12,3 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.13):

- Udal eraikin polibalentearen obran bost hilabeteko atzerapena izan zen.
- Bide-garbiketako eta zabor-bilketako kontratuan eskatutako bermea urte bateko zenbatekoaren gainean kalkulatu zen, eta ez esleitutako guztizkoaren gainean (3,8 milioi euro 3 urterako) (B akatsa).
- 5,5 milioi euroan esleitutako balio anitzeko eraikina eraikitzeko kontratuan, materialen kalitate-kontrollean hobekuntzak egitea esleipen-irizpidea baloratzean, txosten teknikoak enpresa lizitatzailen kalitate-ziurtagiriak hartu zituen kontuan, kontratuaren xede den obran aplikatu beharreko neurri zehatzak hartu beharrean (B akatsa).

Beste erosketa batzuk

- Guztira 61.531 euroren ondasun eta zerbitzuen 2 eskuraketa zuzenean esleitu direla ikusi dugu; ordea, zenbatekoa aintzat hartuta, zegokion lizitazio-prozedura izapidetu behar zatekeen, hau da, gutxienez, prozedura ireki sinplifikatu laburtua (ikus A.13).
- Udalak ez zion publikotasunik eman Udala energia elektriko hornitzeko kontratuari, GFAREN esparru-akordio baten ondorioz gauzatutakoa.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Guztira 470.270 euroren 2 dirulaguntza izendunen justifikazioan, nomen eta gizarte-aseguruen fakturarekin edo dokumentazioarekin justifikatutako gastuak udalaren laguntza baino handiagoak badira ere, ez dira zehaztu eskuratutako diru-sarrera edo dirulaguntza gehigarri horiek. Justifikazio-kontuetan nahitaezkoa da jarduerak sortutako diru-sarrera eta gastu guztiak zerrendatzea.
- Dirulaguntza izendunak arautzen dituzten 4 hitzarmenetan luzapen automatikoko klausulak dituztela atzeman da, nahiz eta araudiak berariazko akordioak eskatzen dituen indarraldia luzatzeko. Klausula hori bera dago jasoa OTASAK Gipuzkoako Parketxe Sarearekin duen hitzarmenean.



III.5 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasun-araudia behar bezala betetzeko, Udalak bere webgunean, hitzarmenei, eta ondorio juridikoak dituzten udal-organoen erabakiei buruzko informazioa argitaratu beharko luke, baita hirigintza-hitzarmenei buruzko informazioa eguneratu ere. Gainera, udal sozietatearen webguneak informazio ekonomikoa, antolaketa-egitura eta estatutuak jaso beharko lituzke. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarte nagusiek gardentasun-araudiaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke, batez ere aurrekontuei eta urteko kontuei dagokienez.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua:

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.198	9.653	9.632	992	938	934
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	8.013	8.193	7.618	780	796	739
Ondare sarrerak (5. kap.).....	70	68	75	7	6	7
A. Sarrera korronteak.....	18.281	17.914	17.325	1.779	1.740	1.680
Pertsonaleko gastuak (cap.1).....	5.008	5.540	5.679	487	538	551
Ondasun korronteen erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	4.909	5.469	5.210	478	531	505
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	2.985	3.032	3.094	291	295	300
B. Funtzionamendu-gastuak.....	12.902	14.041	13.983	1.256	1.364	1.356
Aurrezki gordina (A-B).....	5.379	3.873	3.342	523	376	324
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	24	17	32	2	2	3
Emaizta korrontea.....	5.355	3.856	3.310	521	374	321
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	772	473	275	75	46	27
Aurrezki garbia.....	4.583	3.383	3.035	446	328	294
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	573	77	509	56	8	49
Jasotako kapital transferentziak (7. kap.).....	601	608	236	58	59	23
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	4.006	2.564	3.073	390	249	298
- Emandako kapital-dirulaguntzak (7. kap.).....	40	61	62	4	6	6
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(2.872)	(1.940)	(2.390)	(280)	(188)	(232)
Eragik. ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	2.483	1.916	920	241	186	89
Diruzaintza geldikina.....	10.671	11.712	12.003	1.038	1.138	1.164
GODG.....	7.459	8.748	9.224	726	850	895
Zorpetzea.....	1.412	939	664	137	91	64

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korronteak: % 5,2 egin dute behera 2018ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** % 5,6 behera egin izanaren arrazoi nagusia EIOZ da, izan ere 2018an 1,1 milioi euroren sarrerak eragin zituen eta ondorengo 2 urteetan % 71 eta % 73 txikiagoak.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** % 4,9 egin dute behera, izan ere osagai nagusia, itunpeko zergetan partaidetza, alegia, % 6 murriztu zen, COVID 19aren krisiaren eraginez horren dirubilketa urritzearekin.

Funtzionamendu-gastuak: hirurtekoan % 8,4ko igoera izan zuten, batik bat 2019an; fiskalizazio-gai izan den urtean gastu-mailari eutsi zaio.

- **Pertsonaleko gastuak:** Aztergai aldiko bariazio osoa % 13,4koa da eta honako hauek eragin dute: soldata-igoerak, aztergai aldiaren azken bi urteetan erretiro-sarien ordainketak, gizarte-aseguruen gehikuntzak eta dedikazioa duten zinegotzi kopurua handiagotzeak.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa:** % 6,1eko igoera 2019an gauzatu zen eta gastu horien pisua murriztu egin zen fiskalizazio-gai izan zen urtean. Enpresek emandako zerbitzuek % 16 gehitu zuten kostua, eta azpimarratzekoa da zabor-bilketa eta kale-garbiketa kontratua, kirol instalazioak kudeatzekoa eta zergen ikuskaritzari laguntza ematekoa.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korrontek:** gastu-kapitulu honek % 3,7 egin zuen gora aztertutako aldian, batik bat familiei eta irabazi asmorik gabeko entitateei emandako dirulaguntzetan. Atal honetan azpimarratzekoak dira Covid 19aren ondorioak arintzeko 2020an emandako aparteko laguntzak, nahiz horren eragina murriztu den Oarsoaldea S.A.ri 2020an egindako ekarpen txikiagoen ondorioz.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: sarrerek behera egiteak eta gastu korrontek gora egiteak aurrezki garbiaren murrizketa eragin du, eta hasierako % 25,1etik 2020an % 17,5 izatera aldatu da. Finantza karga txikia da, zorpetzea txikia delako.

Kapital-eragiketen emaitza: hirurtekoko inbertsioak 9,6 milioi eurorenak izan dira, aztertutako aldian sortutako aurrezki garbia (11 milioi euro) baino txikiagoak. % 26,6 dirulaguntza bidez eta aktiboak besterenduta finantzatu dira.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: % 23,7 egin du gora 2018koaren aldean eta 9,2 milioi eurora iritsi da (2020ko sarrera korronteen % 53,2); geldikinaren zenbatekoak gainditu egin ditu hirurtekoko kapitalezko eragiketen emaitzak.

Zorpetzea: % 53 egin du behera aztertutako aldian zehar, egindako amortizazioen ondorioz eta 2020ko sarrera arrunten % 3,8ra iritsi da.

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 2020an bertan behera utzi ziren toki entitateen arau fiskalak, nahiz gutxi gorabeherako gehieneko desegonkortasun tasa erreferentziazko batzuk ezarri ziren. Oiartzungo Udalarari dagokionez, udalaren artekaritzak txostena egin zuen, eta, aurrekontuaren likidazioari dagokionez, egiaztatu zuen ez zituela aipatutako tasak gainditu, eragiketa ez-finantzarioen superabita izan zuelako eta zor erreal biziaren bolumena diru-sarrera ez-finantzarioen % 3,8koa zelako 2020ko abenduaren 31n.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. AITOR.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1 Zerga zuzenak	A.3	5.832	80	5.912	6.262	5.481	781	% 106
2. Zeharkako zergak	A.3	300	14	314	286	245	41	% 91
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	3.111	10	3.121	3.084	2.678	406	% 99
4. Transferentzia korranteak	A.4	8.197	141	8.338	7.618	7.127	491	% 91
5. Ondare-sarrerak	A.8	63	23	86	75	64	11	% 87
6. Inbertsio errealeen besterentzea.....	A.4	-	387	387	509	509	-	% 132
7. Kapitalezko transferentziak	A.4	86	150	236	236	134	102	% 100
8. Aktibo finantzarioak		-	5.209	5.209	16	2	14	(*) % 100
SARRERAK, GUZTIRA		17.589	6.014	23.603	18.086	16.240	1.846	(*) % 98

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza geldikin bidezko finantzaketaren eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABEA	%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak	A.5	5.836	(38)	5.798	5.679	5.678	1	% 98
2. Ondasun korront. eta zerb. gastuak	A.6	5.669	167	5.836	5.210	4.720	490	% 89
3. Gastu finantzarioak		36	2	38	32	32	-	% 84
4. Transferentzia korranteak	A.7	3.268	310	3.578	3.094	3.073	21	% 86
6. Inbertsio errealak	A.8	2.443	5.557	8.000	3.073	2.969	104	% 38
7. Kapitalezko transferentziak	A.7	62	-	62	62	62	-	% 100
8. Aktibo finantzarioak		-	16	16	16	16	-	% 100
9. Pasibo finantzarioak	A.10	275	-	275	275	275	-	% 100
GASTUAK, GUZTIRA		17.589	6.014	23.603	17.441	16.825	616	% 74

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIERAKO		KOBRA./ ORDAINK.	AZKEN ZORRA
		ZORRA	BALIOG.		
Kobratzeko dauden saldoak	A.9	4.986	354	2.045	2.587
Ordaintzeko dauden saldoak		695	-	695	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(354)		



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide aitortu garbiak	18.086
Obligazio aitortu garbiak.....	(17.441)
EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA	645
EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA	(354)
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak.....	33
GODG bidez finantzatutako gastuak	2.476
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	2.800
DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
FUNTS LIKIDOAK	8.928
KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK (ikus A.9)	4.475
Aurrekontu arruntetik	1.846
Aurrekontu itxietatik	2.587
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetatik.....	42
ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK	(1.400)
Aurrekontu korrontetik (ikus A.10)	(616)
Eragiketa ez-aurrekontukoetatik (ikus A.10).....	(784)
APLIKATZEKO DAUDEN PARTIDAK	-
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA	12.003
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak (ikus A.9).....	(2.779)
Atxikitako finantzaketa-soberakina	-
GODG	9.224
ZORPETZEA 2020.12.31N (ikus A.10)	664



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2020KO ETA 2019KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

ERANSKINA	2020	2019	ERANSKINA	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA A.8	94.582	93.348	ONDARE GARBIA	103.125	101.135
Ibilgetu ukiezina	1.375	1.362	Ekarrirako ondarea	49.642	49.642
Ibilgetu materiala	89.134	88.817	Sortutako ondarea	51.167	48.983
Ibilgetuko inbertsioak	1.363	462	Egozteko dauden dirulag.....	2.316	2.510
Lurraren Ondare Publikoa	934	934			
Epe luzeko inbertsio finantz.	1.776	1.773	PASIBO EZ-KORRONTEA A.10	671	843
			Epe luzeko zorrak	671	843
AKTIBO KORRONTEA	10.609	10.201	PASIBO KORRONTEA A.10	1.395	1.571
Zord. eta kobr. bst knt b. A.9	1.511	1.859	Epe lab. zorrak	405	370
Inbertsio finan. epe lab. A.9	170	2.747	Hartzek. eta ordain. bst kontu b. ...	990	1.201
Eskud. eta best. akt. baliok.	8.928	5.595			
AKTIBOA, GUZTIRA	105.191	103.549	ONDARE GARBIA ETA PASIB. GUZTIRA	105.191	103.549

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA, 2020 ETA 2019

Euroak milakotan

	2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak	9.224	8.702
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	8.047	8.995
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	36	73
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.	531	375
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	17.838	18.145
Pertsonaleko gastuak	(5.701)	(5.575)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(3.155)	(3.092)
Kudeaketa arrunteko bst gstu batz.	(5.880)	(6.970)
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus A.8).....	(1.149)	(891)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(15.885)	(16.528)
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	1.953	1.617
Korrontek ez diren beste partida batzuk	15	78
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	1.968	1.695
Sarrera finantzarioak	90	131
Gastu finantzarioak	(32)	(17)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	158	104
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	216	218
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.184	1.913



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 OIARTZUNGO TURISMO AUKERAK S.A.

BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO ABENDUAREN 31N			Euroak milakotan		
	2020	2019	2020	2019	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	2.112	2.254	ONDARE GARBIA	2.138	2.283
Ibilgetu materiala: Kostua	4.119	4.119	Kapitala	1.000	1.000
Ibilgetu materiala: amortiz. Metatua..	(2.007)	(1.865)	Erreserbak	(1)	(1)
			Bazkideen beste ekarpen batzuk (A.11).....	80	73
			Aurreko ekitaldietako emaitzak	(607)	(558)
			Ekitaldiaren emaitza	(39)	(49)
			Dirulaguntzak, dohaintzak (ikus A.11).....	1.705	1.818
AKTIBO KORRONTEA	38	88	PASIBO KORRONTEA	12	59
Merkatar. hartz. eta beste.....	30	30	Hartzekod. epe laburrera.....	3	4
Aldizkatzeak epe laburrera.....	1	1	Bestelako hartzekodunak	9	55
Eskud. eta best. akt. baliok.	7	57			
AKTIBOA, GUZTIRA	2.150	2.342	PASIBOA, GUZTIRA	2.150	2.342

2020KO ETA 2019KO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK		Euroak milakotan	
	2020	2019	
Negoio zifraren zenbateko garbia (ikus A.11).....	33	56	
Hornidurak	(1)	(2)	
Ustiapeneko bestelako sarrerak (ikus A.11).....	23	22	
Pertsonaleko gastuak	-	-	
Ustiapeneko beste gastu batzuk	(66)	(96)	
Ibilgetuaren amortizazioak.....	(142)	(143)	
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste	113	114	
Beste emaitza batzuk	1	-	
USTIAPENAREN EMAITZA	(39)	(49)	
EMAITZA FINANTZARIOA	-	-	
MOZKINEN GAINEKO ZERGA	-	-	
EKITALDIAREN EMAITZA	(39)	(49)	



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Oiartzungo Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu horiek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 21/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 86/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2020ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko azaroaren 27ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean abenduaren 24an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2020ko urtarrilaren 15ean eman zen argitara berriz BAOn.

17,6 milioi euroren hasierako aurrekontua % 34 gehitu zen eta behin betiko aurrekontua 23,6 milioi eurora iritsi zen. Hona hemen 2020ko aurrekontutik onartutako 9 aldatetako:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	KREDITUEN TXERTAKETA	TRANSFE- RENTZIA	GAI- KUNTZA	KREDITU GEHIG.	GUZTIRA
1etik 3ra Zerga-sarrerak.....	-	-	104	-	104
4 eta 7 Transferentziak eta dirulaguntzak	211	-	80	-	291
5 eta 6 Ondare-sarr. eta inbertsioen besterentzea.....	23	-	-	387	410
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina	4.965	-	16	228	5.209
SARRERAK, GUZTIRA	5.199	-	200	615	6.014
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	(38)	-	-	(38)
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gastuak	141	(195)	142	79	167
3. Gastu finantzarioak	-	(26)	-	28	2
4. Transferentzia korrontekak	81	224	42	(37)	310
6. Inbertsio errealak.....	4.977	35	-	545	5.557
7. Aktibo finantzarioak	-	-	16	-	16
GASTUAK, GUZTIRA	5.199	-	200	615	6.014

Aurrekontuaren likidazioa 2021eko otsailaren 18ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2021eko maiatzaren 26ko Udalbatzaren bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2020ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerengatik kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	2.768
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	1.547
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga.....	699
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.....	1.248
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	6.262
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.....	286
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	286
Ur-hornidura eta estolderia zerbitzuen tasa.....	1.603
Zaborrak biltzeko zerbitzua.....	463
Ontzien birziklapenagatiko sarrerak-Ecoembesekiko hitzarmena.....	205
Hirigintzako lizentzien tasak.....	60
Enpresa hornitzaileek jabari publikoaren okupazioagatiko tasa.....	297
Trafikoko isunak eta hirigintzako zehapenak.....	128
Gainkarguak eta berandutze interesak.....	88
Telekomunikazioko enpresak eta aeguru-etxeen konpentsazioak.....	87
Beste txiki batzuk.....	153
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	3.084
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	9.632

Ur-hornidura eta estolderia zerbitzuaren tasa lauhileka kitatzen da, kontsumoen arabera. 2020ko diru-sarrera modura erregistratu ziren 2019ko azken hiruhileko kontsumoen likidazioak eta 2020ko 8 hilabeteetakoak. 2020ko azken hiruhilekoko kontsumoak hurrengo urtean kitatu ziren 481.629 euroren zenbatekoarekin eta 2021eko otsailaren 18an kobrantzarako errolda onartu zen, zeina 2021eko diru-sarrera modura aitortu baitzen.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2020ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza korronte eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONTEAK	KAPITALA
GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA		
Zerga itunduetan partaidetza UFFF-2020ko aurrerakinak	6.291	-
Zerga itunduetan partaidetza UFFF- 2020ko likidazioa 2021eko otsailean.....	430	-
Etzerako laguntza zerbitzua.....	85	-
Saltokiak, Covid-19 krisia	37	
Herribideak	34	
Gizarte zerb. mapa, kirol-jarduer., Arizmendi Enea zaharberritzea eta beste txiki batzuk	79	10
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Zerotik hiru urte bitarteko haur-eskolak (Oartzungo Udal Ikastola Partzuergoa).....	405	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	117	-
Arizmendi-Enea zaharberritzea	-	92
Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasgelak garbitu eta mantentze-lanak egitea.....	80	-
SPRI---Talaia poligonoko kaleetako galtzada berritzea.....	-	134
Lanbideko enplegu plana, langabetuak kontratatzea	22	
Artxiboa, liburutegia, bake-epaitegia eta beste txikiago batzuk	26	-
BESTE BATZUK		
Estatua-ltunpekoak ez diren zergetan partaidetza.....	12	-
GUZTIRA	7.618	236

Zerga itunduetako partaidetzari dagokionez, komeni da adieraztea Udalaren aldeko saldo bat dagoela, Udalen Finantzaketarako Foru Funttsaren 2020ko likidazioaren ondoriozkoa, 429.604 eurorena, eta kobratzeko dagoela ekitaldi itxieran.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2020ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	LANPOSTU KOP.		
	20/12/31		
	Gastua	LPZ	PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak (alkatea eta 5 zinegotzi)	196	-	6
Behin-behineko langileen ordainsariak	36	1	1
Funtzionarioen ordainsariak.....	4.013	87	(a) 103
Lan kontratu finkoko langileen ordainsariak	41	1	1
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak	60	-	(b) 8
Gizarte Segurantzza	1.189		
Elkarkidetza	85		
Beste gizarte-gastu batzuk	59		
PERTSONALEKO GASTUAK, GUZTIRA	5.679	89	119

(a) Titularrak ordezkatzeko 13 bitarteko funtzionario eta programako 10 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

(b) Lanbide Enplegu Plana: abenduan 3 eta 5 hilabete bitarteko aldiatarako kontratatua.

Udalbatzak langileen ordainsariak % 1,5 gehitzea onartu zuen, araudiak aurreikusitako gehienezko % 2ko igoeraren azpitik. 2020an indarrean zegoen lan baldintzak arautzen dituen araudia Udalbatzak 2009ko otsailean onartu zuen eta Udalhitz 2008-2010 du oinarri.

Funtzionarioen ordainsariak bi langileri ordaindutako erretiro aurreratuagatik 58.147 euroren primak jasotzen dituzte. Udalak 2021eko abenduan Giza baliabideen plan estrategiko bat onartu zuen, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean zegoena, eta pizgarri horiek aurreikusten zituen. 2022ko irailean, behin-behinean eten zuen horien ordainketa.

Langileen kontratazioa

2020ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

Kontratu kopurua	
ALTAK	
Karrerako funtzionarioak	4
Bitarteko funtzionarioak (19 langile)	88
Lanpostu hutsa betetzea	2
Titularra aldi baterako ezintasunag. eta eszedentziagatik ordeztea.....	81
Programa edo egitekoen metatzea	5
Lanbide enplegu-planeko lan kontratupeko langileak	8
GUZTIRA	100

Karrerako funtzionarioei dagokienez, altak giza baliabideetako arduradun bati, 2 administrariri eta udaltzaingoko agente lehen bati dagozkie; horiek guztiek 2020an amaitu zuten praktikaldia.



A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Hona hemen kapitulu honetan erregistraturiko kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	OBLIGAZIOAK	GUZTIRA
ERRENTAMENDUAK		39
Azpiegitura eta ondasun orokorrak	219	
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	201	
Makineria, instalaz. eta tresneriarena	150	
Beste ibilgetu bat	29	
IBILGETUAREN KONPONKETAK, MANTENTZE LANAK ETA ZAINZA		599
BULEGOKO MATERIALA		53
Ura	381	
Energia elektrikoa.....	265	
Erregaiak.....	36	
Bestelako hornigaiak	90	
HORNIDURAK		772
Telefonikoak	100	
Informatikoak (IZFEren zerbitzuak barne hartzen ditu, 104.300 euro)	162	
KOMUNIKAZIOAK		262
GARRAIOAK		7
ASEGURU-PRIMAK		61
Gastu juridikoak	97	
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	92	
Bestelako hainbat gastu.....	293	
ASKOTARIKO GASTUAK		482
HOSak jaso eta garraiatzea	617	
Kale garbiketa	480	
San Markoko Mankomunitatea: Gipuzkoako Hondakinen Kontsozioak HHSak tratatzea	289	
Udal eraikinen garbiketa	378	
Udal kiroldegien kudeaketa	305	
Parkeak eta lorategiak zaindu eta mantentzea	170	
Bidaiarien hiri garraioa (Xorrola autobusa)	138	
Zergen ikuskaritzari laguntza teknikoa eta juridikoa	122	
Ludotekak eta udalekuak.....	103	
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	311	
KANPOKO BESTE ENPRESA BATZUEK EGINDAKO LANAK		2.913
DIETAK, MUGIKORTASUNA ETA LEKUALDAKETAK		22
GUZTIRA		5.210



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2020ko ekitaldian, transferentziek eta dirulaguntzek eragindako gastuak era honetan xehakutzen dira:

Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	GASTUA	D-0
Oiartzungo Udal Ikastola partzuergoa (ikus A.12)	(*) 755	-
Oarsoaldea S.A.: 2020ko aurrekontua.....	(*) 303	85
San Markoko Mankomunitatea: ekarpen orokorra.....	(*) 120	-
OTASA (ikus A.11).....	(*) 8	-
GFA eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea	24	-
TRANSFERENTZIAK	1.210	85
Hautzaro Ikastola koop. elkarte.....	(*) 415	-
Ttur Ttur Euskaltzaleon Bilgunea Kultur Elkarte	(*) 120	-
Ibargain Musika Eskola	(*) 106	-
Soinuenea fundazioa-musika herrikoiaren museoa.....	(*) 93	-
Oiartzungo emakume taldea "Helta" elkarte-kirol eta kultura ikastaroak	(*) 85	12
Luberri Fundazioa: interpretazio geologikoko zentroa	64	-
Hitz hots kultur elkarte: Oiartzun Irratia	55	-
Arraztalo elkarte: gaixo psikikoei laguntzak	53	-
Udal zinegotzien 2 talde: taldearen jarduerak	78	-
Beste txikiago batzuk (27 onuradun)	220	20
IZENDUNAK	1.289	32
Gizarte larrialdiko laguntzak (67 onuradun): araudi autonomikoa.....	(*) 114	-
Bazterkeria sozialerako udal laguntza osagarriak (72 onuradun)	(*) 90	-
Merkatariak, ostalaritza eta zerbitz. (74): Covid 19ak eragindako kalteen konpents.....	(*) 97	-
Kirol-elkartek (6): urteko jarduera eta kirol ekitaldiak.....	(*) 59	-
Euskararen irakaskuntzako ikastaroen tasei/prezioei laguntzak	43	-
Beste txikiago batzuk (10 dirulaguntza lerro)	104	20
LEHIA	507	20
ZUZENAK (Aranzadi elkarte eta 5 laguntza kirol eta ingurumenerako)	10	-
Oarsoaldea S.A.: 2018 eta 2019ko kudeaketa-planen likidazioa.....	(*) 31	-
Udal elkarteak: Euskal Fondoa, Eudel eta Hobeki	27	-
2019an emandako beste dirulaguntza batzuk	20	-
BESTE BATZUK ETA AURREKO EKITALDIETAN EMANDAKOAK	78	-
4. KAPITULUA GUZTIRA	3.094	137
San Markoko Mankomunitatea.....	(*) 12	-
OTASA (ikus A.11).....	(*) 20	-
Hautzaro Ikastola koop. elkarte.....	(*) 30	-
7. KAPITULUA GUZTIRA	62	-

(*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.

Oarsoaldea S.A. Udalak (% 25) eta beste 3 udalek partaidetutako sozietatea da. Udal horientzat enplegu, enpresa sustapen, turismo, euskararen sustapen, hiri berroneratze eta kontsumo zerbitzuak ematen ditu mankomunitatean. Ekarpeneak zerbitzu bakoitzerako aurreikusitako defizitarekin kalkulatu dira, eta Udalari 4 udalen ekarpenen % 14 eta % 34



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

bitarteko ekarpena dagokio. Gastu gisa erregistratzen dira aurrerakinak eta gastu-konpromiso gisa aurreikusitako gainerako ekarpena (D-O), eta hurrengo urtea betearazpen-datua errealekin likidatzen da.

Eskualdeko 4 garbiguneetako zerbitzuak, Aizmendiko zabortegia, San Markoko itxitako zabortegiaren mantentze-lanen kostua eta San Markoko Mankomunitatearen gastu orokorrak eranskin honetako hasierako taulan jasotako 120.222 euroren ekarpen orokorrarekin finantzatzen dira. Aurrekontuaren zenbatespenetan oinarrituta kalkulatu da, gauzatze-datuekin zuzendu gabe. Udalerrien arteko banaketa biztanleria-irizpideen arabera egiten da, eta Udalari % 3,2 dagokio.

San Markoko Mankomunitateari egindako 11.660 euroko kapital-ekarpenaren xedea da funts bat sortzea San Markoko zabortegiaren etorkizuneko gastuak ordaintzeko. Zabortegia 2009an utzi zioten udalek erabiltzeari, baina horrek gastuak sortuko ditu etorkizunean eta Mankomunitateak 2020ko abenduaren 31n 35,1 milioi euroren zenbatekoarekin hornitu du.

Gizarte Larrialdietarako Laguntza 114.275 euro izan da 2020an eta EAEk araututakoekin bat datoz, zeinak urte horretan 101.417 euro eman baitzituen helburu horretarako. Gainera, udal-programa baten bidez 90.209 euroren laguntza osagarriak eman ziren.

Dirulaguntza izendunak jasotzen zituzten 8 hartzaile nagusiei emandako dirulaguntza izendunak Udaltzak onartutako hitzarmenen bidez arautu ziren. Hitzarmen horiek 2021etik 2023ra bitarteko aurrekontuetako kredituak konprometitzen zituzten, 1,7 milioi euroren zenbatekoan.

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen Udalaren aktibo ez korronteko kontuen 2020ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 20/01/01	INBERTSIO ERREALAK	DOIKETAK/ BIRSAILK.	ZUZKIDURA ETA BESTE	SALDOA 20/12/31
IBILGETU UKIEZINA	1.380	13	-	-	1.393
Lursailak eta ondare naturalak	40.881	179	-	-	41.060
Eraikuntzak	39.576	917	(308)	-	40.185
Azpiegiturak	47.852	1.006	(683)	-	48.175
Beste ibilgetu material bat	5.462	507	(153)	-	5.816
Abian dagoen ibilgetu materiala	665	-	902	-	1.567
IBILGETU MATERIALA	134.436	2.609	(242)		136.803
LURRAREN ONDARE PUBLIKOA	934	451	(451)	-	934
EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK (*)	1.773	-	-	3	1.776
KOSTU AKTIBO EZ-KORRONTEAREN GUZTIZKO PARTZIALA	138.523	3.073	(693)	3	140.906
Ibilgetu ukiezinaren amortizazio pilatua	(18)	-	-	-	(18)
Ibilgetu mater. amortizazio pilatua	(45.157)	-	-	(1.149)	(46.306)
AKTIBO EZ-KORRONTEA GUZTIRA	93.348	3.073	(693)	(1.146)	94.582

(*) OTASA (% 100) eta Lanbarren Parke Logistikoa S.A. (% 25) dira aktibo finantzario nagusiak.

Inbertsio errealek altak sortzen dituzte ekitaldian zehar, eta ekitaldiaren itxieran berrikusi egiten dira eta oker egotzitakoa zuzendu, aurreko taulako doiketa eta birsailkapenen zutabeen adierazitakoaren arabera.

Aktibo ez-korrontearen kontabilitateko saldoa elementuka xehakutzen da inbentario batean eta horri gehitzen zaizkio inbentarioan alta eman ez zuten azken ekitaldietako inbertsioak eta alta eman gabe udalaren aktiboan sartu zen udal sozietate desegin baten ibilgetua. Aktibo ez-korrontearen kostua elementuka 1,6 milioi eurotik gorakoa da. Gainera, inbentarioan jasotako azpiegiturak, 21,4 milioi euroren kostu garbia zutenak, ez ziren amortizatu 2020an. Horri dagokionez, 2020ko abenduaren 31n kontabilitate-balio garbia zuten azpiegitura-elementuen amortizazio metatua kostuaren % 21ekoa zen; ordea, % 60an amortizatuta egon behar zuketean.

A.9 ZORDUNAK

Balantzeko zordunen eta kobratu beharreko beste kontu batzuen idazpuruek eta epe laburreko inbertsio finantzarioek aurrekontu-zordunak eta beste saldo batzuk barne hartzen dituzte, xehetasun hauen arabera:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	2017 eta lehen.	2018	2019	2020	GUZTIRA
Zerga zuzenak	1.042	186	246	781	2.255
Zeharkako zergak	6	-	15	41	62
Tasak eta bestelako sarrerak.....	425	103	197	406	1.131
Transferentzia korronteak	-	3	-	491	494
Ondare-sarrerak.....	17	3	4	11	35
Inbertsio errealeen besterentzea.....	170	-	-	-	170
Kapitalezko transferentziak	-	-	169	102	271
Aktibo finantzarioak	-	-	1	14	15
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	1.660	295	632	1.846	4.433
Aurrekontuz kanpoko saldoak					42
Langileei aurrerakinak emateagatik ondare-kontabilitatearen saldo hartzekoduna					(15)
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak					(2.779)
ZORDUNAK GUZTIRA					1.681
				Zordunak eta kobr. bst. knt. b.	1.511
				Epe laburreko finantza inbertsioak	170

Aurreko taulako Tasak eta beste diru-sarrera batzuk idazpuruak jabari publikoaren okupazio-tasaren 6 likidazio jasotzen ditu, 399.749 euro guztira; likidazio horiek errekurritu egin ziren eta Udalaren aurkako epaia 2021eko abenduan eman zen. Likidazio horiek egiteko nekez egingarri diren saldoetarako hornidura kontuan hartuta, epaiak 78.411 euroko eragina du ondare garbian.

Udalak osorik nekez egingarritzat jotzen ditu 24 hilabetetik gorako antzinasuneko saldoak. Gainera, zalantzazko kobragarritasuna dutela irizten zaie 2019ko eta 2020ko eskubide aitortuak, hurrenez hurren % 60an eta % 24an.

A.10 HARTZEKODUNAK ETA ZORPETZEA

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n kontabilitatean erregistraturiko pasiboen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	PASIBO KORRONTEA	PASIBO EZ ARRUNTA	GUZTIRA 20/12/31
HARTZEKODUN EZ-AURREKONTUKOAK	542	242	784
Jasotako fidantzak eta gordailuak.....	66	242	308
PFEZagatik Ogasun Publiko hartzekoduna.....	226	-	226
Elkarkidetza eta Gizarte Segurantzza hartzekodunak.....	155	-	155
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak.....	95	-	95
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	616	-	616
BANKUETAKO ZORRA	235	429	664
SARRERAK ITZULTZEAGATIKO HARTZEKODUNAK	2	-	2
GUZTIRA	1.395	671	2.066

Zorpetzeari dagokionez, hona hemen kontraturiko maileguak:

ENTITATEA	% INTERESA	EPEMUGA	SALDOA			SALDOA 20/12/31
			20/01/01	AMORT. BERRIA		
Laboral Kutxa Kreditu Koop.....	Euribor 3 hilabete + 0,1	2020	22	22	-	-
Nafarroako Rural Kutxa, Kreditu Koop.....	Euribor 1 urte + 0,9	(*) 2023	17	17	-	-
Caixabank S.A.....	Euribor 3 hilabete + 1,25	2022	220	80	-	140
Kutxabank S.A.....	Euribor 3 hilabete + 1,5	2023	335	96	-	239
Kutxabank S.A.....	Euribor 1 urte + 2,0	2024	345	60	-	285
ZORPETZEA, GUZTIRA			939	275		664

(*) Aldez aurretik amortizaturiko mailegua.

A.11 OTASA

Sozietate hori 2006an eratu zen, Oiartzunen turismoa eta aisialdia bultzatzeko, garatzeko eta sustatzeko. Fiskalizatutako ekitaldian, jarduera Arditurriko Interpretazio eta Meategien Zentroaren kudeatzea izan da. Sozietateak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin adostu zuen Arditurri zentroa dinamizatzen laguntza ematea, eta 2010ean hitzarmen bat sinatu zuen. Gainera, 2012an 10 urterako enpresa batekin Arritxulo aterpetxearen kudeaketa kontratatu zuen, eta enpresa horrek zerbitzuaren diru-sarrerak jaso zituen, eta OTASari urteko kanon bat ordaindu zion, hasieran urteko 3.752 euroan finkatu zena. Administrazio Kontseiluak 2020ko kanona ordaintzetik salbuetsi zuen enpresa, Covid 19a zela eta.

Diru-sarrerak

2020ko ekitaldian OTASaren diru-sarrerak honela xehakatzen dira:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	SARRERA
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	33
Salmentak	16
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren dirulaguntza	17
BESTELAKO USTIAKETA-SARRERAK	23
Udalaren dirulaguntza.....(*)	18
GFA-REN DIRULAGUNTZAK.....	5

(*) % 10eko BEZa jasanarazi da eta emaitza guztira 20.000 euroren ekarpena da (ikus A.7).

Udalak beste 8.000 euro gehiagoren ekarpena egin zuen (ikus A.7), eta horiek Ondare Garbian erregistratu ziren, Bazkideen beste ekarpen batzuk idazpuruan.

Ibilgetu materiala eta kapitalezko dirulaguntzak

2020ko abenduaren 31ko ibilgetu materialaren kostua 4,1 milioi euro zen, Arditurriko interpretazio eta mehategien zentroari zegokiona.

OTASAk aurreko inbertsiorako kapitalezko dirulaguntzak jaso zituen, honako zenbateko hauekin:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	SARRERA
Oiartzungo Udala	1.904
EAE.....	1.144
Gipuzkoako Parketxe Sarea para Arditurri fundazioaren ekarpena	384
KAPITALEZKO DIRULAGUNTZAK GUZTIRA 2007-2010	3.432
Emaitzetara egotzia 2020ko baino lehen	(1.614)
Emaitzetara egotzia 2020an.....	(113)
KAPITAL DIRULAGUNTZAK GUZTIRA, EMAITZETARA EGOZTEKO ZAIN	1.705

A.12 OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA

1999ko urtean Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa sortu zen Udalaren, itunpeko ikastetxe baten eta enpresa pribatu baten artean. Estatutuen arabera, partzuergoaren helburu soziala da Oiartzunen hezkuntza- eta kultura-proiektuak sustatzea eta kudeatzea. Fiskalizatutako ekitaldian, Partzuergoaren jardura 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza ematean oinarritu da.

Partzuergoaren estatutuak ez dira indarreko araudira egokitu; izan ere, araudi horrek Udalari atxikitzea eskatzen du, aurrekontuak eta kontuak Udalarenetan integratuz; Partzuergoaren jardura ekonomikoa kontu-hartzailearen kontrolaren mende dago eta langileen kudeaketa sektore publikoko langileen araudiaren mende.



Sarrerak eta gastuak

Hona hemen Partzuergoaren 2020ko ekitaldiko galera eta irabazien kontuaren xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBAT.
Zerbitzu ematea.....	128
Udalaren ustiapen-dirulaguntzak (ikus A.7).....	755
Hornidurak.....	(30)
Pertsonaleko gastuak.....	(854)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	(26)
Ibilgetua amortizatzea.....	(78)
Beste emaitza batzuk.....	1
USTIAPENAREN EMAITZA	(104)

Partzuergoa finantzatzen da Udalaren ekarpenekin eta emandako zerbitzuengatik erasandako prezioekin. Udalak, berebat, 2020an EAetik 405.322 euroren dirulaguntzak jaso zituen, ikastetxe bateko titular den aldetik (ikus A.4).

Balantzea

Aktiboan azpimarratzekoak dira Partzuergoak zerbitzu emateko baliatzen dituen eraikinak; pasiboari dagokionez, berriz, osagai nagusia emaitza metatuak dira.

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	SALDOA
Lursailak eta eraikuntzak.....	1.187
Ibilgetu materialeko beste idazpuru batzuk.....	51
Aktibo korrontea.....	17
AKTIBOA, GUZTIRA	1.255
Emaitza metatuak.....	(1.311)
Ekitaldiaren emaitza.....	104
Pasibo korrontea.....	(48)
PASIBOA, GUZTIRA	(1.255)



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 KONTRATAZIOA

ESPEDIENTE AZTERTUAK

Euroak milakotan

KONTRATUA	ADJUDIKAZIOA			Subro- -gazioa	Gastua 2020	AKATSA	
	Data	Prozed.	Zenbat. (*)			A	B
1. Udal eraikinen garbiketa (2 urte).....	aza-17	Irekia	(**) 756	12	378		
2020 eta 2021erako urteko luzapenak	aben-19 eta 20		(**) 756				
Aldak. iraila-abendua Covid 19agatik	urr-20		54				
2. Kirol instal. eta udako igerilekuaren kudeak. (2 urte).....	abe-17	Irekia	422	20	305		
2020 eta 2021erako urteko luzapenak	abe-19 eta aza-20		422				
Aldak. Instal. itxiera Covid 19agatik martxoa-ekaina.....	ira-20		91				
3. Zergen ikuskaritzan laguntza teknikoa (2 urte).....	mai-18	Irekia	(**) 244	-	122		B
4. Errazteko makina eta furguoa hornitzea	ots-20	Irekia	274	-	274		B
5. Hiri garbik. eta HHSen bilketa eta garraioa (3 urte).....	mai-20	Irekia	3.786	20	620		B
6. Udal eraikin polibalentean obra.....	urr-19	Irekia	5.536	-	899		B
UDALA GUZTIRA			12.341	52	2.598		

(*) Esleitutako zenbatekoak BEZa barne.

(**) Aleko prezioak: esleipen-zenbatekoa, 2020ko egiazko egikaritzat datuekin balioetsia.

B AKATS ESPEZIFIKOA (ikus II.1 eta III.3 atalak)

Beste erosketa batzuk

Horrez gain, beste erosketa batzuk ere aztertu ditugu, eta ikusi dugu 2020an, 48.028 euroko kostuarekin, udalerriko taxilarien elkarteari 2011n esleitutako taxi-zerbitzua gauzatzen jarraitzen zela eta horrek zerbitzu-kontratuertarako aurreikusitako 4 urteko gehieneko epea gainditu duela.

Halaber, erosketa txiki modura izapidetutako erosketak ere badaude, prozedura ireki erraztu bidez egin behar ziratekeenak:

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	Gastua
Telekomunikazioen zerbitzua.....	39
Lan arriskuen prebentziorako zerbitzua	22
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA GUZTIRA (*)	61

(*) SPKLren 159.6 artikulua baldintza batzuetatik salbuetsitako prozedura sinplifikatua aurreikusten du 80.000 eurotik beherako kontratu txikietarako (obrak) eta 35.000 euro (gainerako kontratuak) baino gutxiagoko kontratuertarako. BEZik gabeko zenbatekoak.

ALEGAZIOAK

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

